



**GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k HONDAKINEN BILKETA EGITEKO
KABINA BAXUDUN IBILGAILUA ALOKATZEKO KONTRATUA**

Hernanin, 2019ko maiatzaren 20an,

AGERTU DIRA

Alde batetik, ENERITZ GURRUTXAGA GOGORTZA andrea, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko kudeatzailea eta NAN zka. 44.145.740T duena.

Bestetik, XAVIER LECHA ARENY jauna, NAN zka. 43709404C duena, eta ANTON GOMÀ PUJOL jauna, NAN zka. 78072650R duena ENVIRORENT XXI S.L.ren ordez

ESKU HARTZEN DUTE

ENERITZ GURRUTXAGA GOGORTZA andreak, bere karguarengatik GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ren izenean; kontratuaren esleipen honetarako baimendua dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2019ko apirilaren 12an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

XAVIER LECHA ARENY jaunak eta ANTON GOMÀ PUJOL jaunak ENVIRORENT XXI S.L. enpresaren izenean eta ordez; (enpresa honen helbidea Avinguda Cervera, s.n., Tàrrega 25.300 (Lleida) eta IFK zka. B25591090) enpresak Elena Luances López Notarioaren aurrean esleitutako botereen arabera, protokolo zka. 2011/466/N/24/05/2011.

Bi aldeek kontratu hau egiteko nahikoa lege-gaitasun aitortzen diote elkarri, eta horretarako,

AZALDU DUTE

Aurrekari administratiboak

Kontratazio espedientea, aurrekontua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Balditza Teknikoen Agiriak 2019ko otsailaren 21ean egindako bilkuran onartu zituen Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak. Baldintza agiri horien kopiak kontratuaren osagai gisa sartzen dira.

Administrazio Kontseiluak, 2019ko apirilaren 12an burutu bilkuran, Envirorent XXI S.L. izan dela aurkeztutako eskaintza bakarra eta harek lortutako puntuazioa ezagutu zuen. Enpresak, baldintza guztiak betetzen zituela ikusita aipatu enpresari kontratua esleitzea erabaki zuen.

Enpresa horrek zerbitzua eman ahal izateko baimen guztiak izan eta jakinarazi zaionetik 10 laneguneko epean eskatzen den bermea eratu du. Bermearen zenbatekoa: 5.445,00€.

XEDAPENAK

1.- ENVIRORENT XXI S.L. enpresak bere instalazioen zerbitzua emango dio Garbitania Zero Zabor S.M.ri, zorrotz betez Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian, baita kontratistaren proposamenean dauden zehaztasunak ere.

2.- Garbitania Zero Zabor S.M.k aipatu enpresari, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 7. klausulan zehaztutako eran eginiko eskaintzaren arabera ordainduko dio, 3.660€/hileko alokairu kontzeptuan, gehi 768,6€ %21ko BEZari dagozkionak.

3.- Kontratu honek bi urteko iraupena izango du.

Kontratuaren amaieran, Garbitania Zero Zabor S.M.k horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko 2 alditan (aldi bakoitzean Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), esleitua zerbitzua luzatzera behartuta legoke esleitu berri batek lan hauek burutzeko konpromisoa hartzen duen arte.

4.- ENVIRORENT XXI S.L.-k hirugarrenentzako aseguruua du, kalteak estaltzen dituen inolako fidantzarik gabe. Hortaz, ezingo dio Garbitania Zero Zabor S.M.ri inputatu inolako zordunketa gehigarririk ibilgailuari eragindako kalteengatik, betiere aseguru-etxeak onartutako kalteak badira.

5.- Garbitania Zero Zabor S.M.-k ibilgailua hiri hondakin eta asimilagarrien bilketa eta garraio lanetarako erabiliko du. Enpresaren ardura izango dira ausarkeriaz gidatzearen ondorioz, era desegokian edo eta debekatuta dagoen (zirkulazio kodean edo herri eta eskualde ordenantzetan) modura gidatzeagatik, ibilgailuak zein hirugarrenen jasandako kalteen erreklamazioak. Horrez gain, enpresaren ardura izango dira alkohol edo drogen eraginpean gidatzearen ondorioz gertatutako kalteak, zirkulazio edo kode zibila urratuz gertatutakoak edo bide-segurtasunari eragiten dizkietenak.

6.- Bi aldeak daude beharturik kontratu hau betetzera, baita Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria eta esleipendunaren proposamenean dauden zehaztasunak; eta horietan ezarri gabeko guztian, azaroaren 8ko SPKL (9/2017) ezarritakoa eta beste administrazio legeek ezarritakoa jarraituko da. Horrelakorik ezean, zuzenbide zibileko xedapenak aplikatuko dira.

Eta adostasunaren froga gisa, bi aldeek bi ale izenpetuko dituzte goian aipaturiko lekuan eta egunean

Xavier Lecha Areny
ENVIRORENT XXI S.L.

ENVIRORENT XXI, S.L.

Anton Goma Pujol

ENVIRORENT XXI S.L. (Inida)

Av. Cervantes, 11 - 48300 Hernani

Eneritz Gurrutxaga Gogortza
GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.

garbitania
CIF: B-75024182